



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

ALDUNDIAK BATZAR NAGUSIETAN ADIERAZO DAUENEZ, TEST “MASIBOAK” EGIN DIRA BIZKAIKO EGOITZEN %87AN

- Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatua Bizkaiko Batzarren aurrera etorri da gaur, oposizinoak eskatuta, Covid-19ak eragindako krisiaren aurrean bere sailak egin dauen beharraren ganeko informazioa emoteko.
- Murillok ezeztu egin dau birusak egoitza publikoetan eta pribaduetan modu desbardinean jokatu dauenik, kutsaduraren ehunekoa “bera” izan dalako.
- Dagozan “155” egoitzetatik “135ean”, test masiboak, PCRak edo serologikoak, egin dira pandemia hasi zanetik.
- Oposizinoak, barriro be, Aldundiaren “gardentasun faltea” kritikau dau, eta Bizkaiko egoitza bakotxean pandemiak izan dauen eraginaren ganeko xehetasun eta informazio gehiago eskatu dau.

(Bilbon, 2020ko maiatzaren 7an). Sergio Murillo Gizarte Ekintzako foru diputatua Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri da, Talde Bereziak (PP) eta EH Bilduk eskatutako hiru agerraldi eskaerari erantzuteko. Eskari horreetan, beste gauza batzuen artean, Bizkaiko adinekoren egoitzetako erabiltzaileei eta beharginei Covid-19a dala eta egindako testen informazio “zehatza” eskatzen zan. Horrez gain, Gizarte Ekintzako Sailak krisi honetan indarrean jarri dituan neurrien barri emoteko be eskatu dabe, horreen artean Birjinetxen, Unben eta Santurtzin egokitutako baliabide berezien ganekoa.

Beste ezer baino lehen, Murillok Bizkaiko egoitzetan egindako testen ganeko azkenengo datuak aurkeztu deusiez Batzarretako taldeei. “Eusko Jaurlaritzaren Osasun sailaren eskumena dan arren”, jakinarazo dauenez, diagnostikoko test masiboak (PCRak eta serologikoak) egin dira lurraldean dagozan 155 egoitzetatik “135ean”. Behar hori Bizkaiko bost Erakunde Sanitario Integrauetan (ESI) egiteko orduan, agintariek lehenetsuna emon gura izan deutse “Covid-a eukien egoitzei”. Murillok egiaztatu dauenez, eremu horreetako lautan –Barakaldo-Sestao, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetan, Bilbo-Basurtu eta Uribe–, probak “ia egoitza guztietara heldu dira”, eta Arabako parte bat be hartzen dauen Barrualde-Galdakao ESIan, barriz, bertan dagozan 47 egoitzetatik “%66an” egin dira testak.

Eduardo Andrade ordezkari popularrak baloia Eusko Jaurlaritzaren teiltuan jarri izana kritikau dau, izan be, bere eretziz, diputatuak ez dau Bizkaiko egoitza bakotxean “kutsatutako en edo hildako en ganeko” daturik emon. Azkenengo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

egunetan prentsan argitaratu diran informazioetan oinarrituta, Bea Ildia EH Bilduko bozeroaleak, egoitza horreetako “311 behargin” kutsatu dirala adierazo dau, horreetatik “9”, GUFeko egoitzetan izan dira, egoitza horreetan 481 behargin dagozan arren. Bere eretxiz, horrek argi eta garbi erakusten dau birusak “kudeaketa publikoa edo pribadua bereizten dituala”. Baina, datu berberetan oinarrituta, kutsaduraren ehunekoa “berbera” dala esan dau Murillok, eta, hori dala eta, “ez dagola foru edo udal egoitzen, kontzertauen edo pribaduen arteko bereizketea erakusten dauen ebidentzia nahikorik”.

JARDUKETARAKO ZAZPI ILDO

Horren ostean, “zezeilaren 25etik bertatik”, Alarma Egoerea aldarrikatu baino 17 egun lehenagotik, Bizkaian oraindino kasu positiborik ez egoanetik, lehenengo bileraren ostean lehenengo neurriak hartzen hasi ziranetik, bere sailak aktibatu dituan jarduketa nagusiak azaldu ditu. Bere sailak edegi dituan “jarduketarako zazpi ildoetan”, Murillok hainbat arlori jagokozan datu eguneratuak emon ditu: komunikazioak egoitzakaz eta familiakaz, egindako ikuskapen eta test kopurua, egoitzen garbiketea, behargin sozio-sanitarioentzako ostatuak, laneko boltsea eta babeserako ekipoen banaketea.

Holan, Aldundiak, Su-hiltzaile zerbitzuaren eta Basalanen bitartez, eta apirilaren 8tik baimendutako enpresakaz batera, “1.023 garbiketa eta desinfekzio jarduketa” gauzatu ditu. Horrez gain, joan dan maiatzaren 4ra arte, egoitzetako profesionalei “1.190 test PCR” egin jakez, eta Covid zentroetan “82 ikuskapen fisiko”, eta baita “ikuskapeneko 294 jarduketa” be. Murillok zehaztu dauenez, bere sailak hotelak egokitu ditu Bizkaiko behargin sozio-sanitarioentzako ostatu moduan erabilteko, eta, holan, “42 profesionalek 740 egotaldi” egin ditue.

Medikuntza eta erizaintzako unibersidadeko gradueta eta LHko azkenengo ikasturteko ikasleakaz edegi dan laneko boltsak “1.684 persona” ditu gaur egun, horreen artean “15 sendagile, 34 DUE eta 1.403 zaintzaile”. Boltsa horrek “37 egoitzaren” eskariari erantzun deutse, profesional horreen artetik “254” hartuz. Bukatzeko, Aldundiak “milioi bat maskara, amantal eta bisera baino gehiago” banatu ditu, “25 plaza bakoitzeko 500 banatzera helduz”.

Horrez gain, Murillok birusak adinbakoen egoitzetan izan dauen eragina be aitatu dau. Erabiltzaileen artean ez da “kasu positiborik” hauteman, baina une honetan “adinbako bat isolatuta” dago. Beharginei jagokenez, egindako probetan “9 beharginek” koronabirusean positibo emon dabe.

“947 erabiltzaile” dituen 10 plaza baino gehiagoko aniztasun funtzionaleko zentroeiei jagokenez, sailak “24 erabiltzaile” eta “18 profesional” kutsatu



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

hauteman ditu, eta beste “6 erabiltzailek” eta “45 profesionalek”, birusagaz bateragarriak izan daitezkezan sintomak izan ditue.

Datu horreek emon ostean, Murillok Bizkaiko gizarte sareko profesionalek “une gogorrean” egin daben beharra aintzatetsi dau, baina datuen bilakaerea ikusita, “txarrena igaro dala” emoten dau. “Oso denpora laburrean” martxan jarri diran neurriek “birusaren hedapenari aurre egiteko eta ahaztuta eta baztertuta geratu ezin eitekezan pertsoneri funtsezko arretea emoten jarraitzeko” balio izan dabe.

Halanda be, EH Bilduk zalantzan jarri dau Aldundiak krisialdian emon dituan jarraibideak kontrolau dituanik, izan be, “lehenengo unetik Norberaren Babeserako Ekipoak ez dira ailegau”. “Nork kontroletan dau jarraibide horreek beteten diran ala ez? Egoitza batzuetara koronabirusa ez da heldu, eta beste batzuetan birusak bertako egoiliarren %25 hil dau. Aperribain, ehunekoa are handiagoa izan da. Zein kontrol egon da egoitza horreetan? Ez bada kontrolik egon, sistema aldaketea aztertzeko unea da”, adierazo dau Bea Ilardia bozeroaleak. Bere eretxiz, pandemiak “argi eta garbi” erakutsi dau Bizkaiko egoitzen sistemak “hutsuneak dituala alde guztietatik”. “Noiz zehaztuko jakuz egoitzaz-egoitzako datuak?”, galdetu dau.

Horrez gain, koalizino abertzaleak, koronabirusak kutsatutako erabiltzaileak bereizteko erabili diran sareko unidade espezializau bilakatutako Birjinetxeko, Unbeko eta Santurtziko egoitzen egoeraren balorazinoa eskatu dau. Foru diputatuak baieztu dauenez, batez beste “56 plaza” beteta izan dituan eta “22 alta” emon dituan Birjinetxeko “96 profesionalek”, “112 personari” emon deutse arretea. Unberi jagokonez, “48 profesional” “111” gaixoz arduratu dira, eta “22 alta” emon dira, eta batez besteko okupazinoa “47 personakoa” izan da. Bukatzeko, Santurtzin, “16 behargin” aritu dira apirilaren 18tik aurrera Eusko Jaurlaritzagaz batera kudeetan dan unidade horretako batez besteko “8 plazei” arretea emoten.

Bea Ilardiak galdetu dau “egoitzetako erabiltzaile gaixo horreek zergaitik ez daben jaso osasun sarera joan diran kutsatutako personek jaso daben arreta bera”. “Ospitalera joan behar izan badau, ospitalera joan da. Inor ez da ospitalera joan barik geratu egoitza horreetara joateko”, erantzun dau Murillok.

ONETSI EZ DIRAN PROPOSAMENAK

Gaurko saio luzea, arauz besteko proposamen bi onetsi barik bukatu da. Lehenengoan, EH Bilduk hau eskatzen eutsan Aldundiari: egoitzetako arreta zuzena handitzea, SARS-CoV-2a hautemateko probak egitea egoitza horreetako beharginei eta erabiltzaileei; ikuskapen zerbitzua segiduan



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

indartzea, eta zentro pribaduetan jarduketarako arauak beteten dirala bermatzea. Ekimena ez da onetsi, aldeko 5 boto (EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia), kontrako 9 (Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak) eta abstentzino bat (Talde Berezia) izan ditualako. Jeltzaleek eta sozialistek zuzenketa-eskea aurkeztu dabe testuaren aurrean, baina ez jake onartu.

Foru Gobernua eusten daben taldeek Talde Bereziaren (PP) beste ekimen bat be atzera bota dabe, agertokia “aldatu egin dala” eta planteetan ziran gauza asko gizarte zerbitzuen bitartez konpontzen eta bideratzen ari dirala esanez. Idazkian, beste puntu batzuen artean, Norberaren Babeserako Ekipoen behar besteko hornidurea bermatzeko, adinekoen egoitzetako profesional eta erabiltzaile “guztiei” COVID-19aren test diagnostikoak egiteko, eta egoitzetan laguntza psikologikoa sartzeko eskatzen jakon Aldundiari



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LA DIPUTACIÓN ASEGURA EN LAS JUNTAS GENERALES QUE SE HAN HECHO TEST “MASIVOS” EN EL 87% DE LOS CENTROS RESIDENCIALES DE BIZKAIA

- El diputado foral de Acción Social, Sergio Murillo, ha comparecido hoy en la Cámara vizcaína a petición de la oposición, para informar del trabajo de su departamento en relación a la crisis generada por el Covid-19.
- Murillo ha negado que el virus distinga entre residencias públicas o privadas, ya que el porcentaje de contagio ha sido “el mismo”.
- En “135 residencias”, de un total de “155”, se han realizado test masivos PCR o serológicos desde el inicio de la pandemia.
- La oposición vuelve a lamentar la “falta de transparencia” de la Diputación y pide mayor detalle e información sobre el alcance de la pandemia en cada residencia de Bizkaia.

(Bilbao, a 7 de mayo de 2020). El diputado de Acción Social, Sergio Murillo, ha acudido hoy a las Juntas Generales de Bizkaia para responder a tres peticiones de comparecencia solicitadas por el Grupo Mixto (PP) y EH Bildu, en la que solicitaban, entre otras cosas, información “pormenorizada” de los test realizados por el Covid-19 a los residentes y a las plantillas de los centros de residencia de mayores de Bizkaia, así como las diferentes medidas adoptadas por el departamento de Acción Social en esta crisis, entre ellas, los recursos especiales habilitados en Birjinetxe, Unbe y Santurtzi.

Murillo ha trasladado a los grupos junteros, en primer lugar, los últimos datos sobre los test realizados en las residencias vizcaínas. “Pese a que es una competencia del departamento de Salud del Gobierno Vasco” ha advertido, se habrían hecho test de diagnóstico “masivos” (PCR y serológicos) en “135 residencias” del territorio, de un total de 155. A la hora de hacer este trabajo en las cinco Organizaciones Sanitarias (OSIS) que cubren Bizkaia, las autoridades han querido “priorizar los centros con Covid”. Murillo ha confirmado que en cuatro de estas áreas -Barakaldo-Sestao, Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces, Bilbao-Basurto y Uribe-, las pruebas han llegado a “prácticamente todas las residencias”, mientras que en la OSI Barrualde-Galdakao, que cubre también parte de Araba, los test se han realizado “al 66%” de los 47 centros.

El representante popular Eduardo Andrade ha lamentado que se “pase la bola” al Gobierno vasco, ya que, a su juicio, el diputado no ha ofrecido datos “sobre el número de contagiados o de muertos” en cada una de las residencias de



Bizkaia. Apoyada en informaciones publicadas en la prensa en los últimos días, la portavoz de EH Bildu, Bea Ildia, ha señalado que “311 trabajadores” de estos centros han sido contagiados, de ellos “9” son positivos localizados en residencias del IFAS donde trabajan 481 trabajadores, lo que a juicio de ella supone que el virus “sí ha entendido de gestión privada o pública”. En cambio, en base a estos mismos datos, Murillo ha señalado que el porcentaje de contagio “es el mismo”, por lo que “no hay una evidencia suficiente que distinga entre residencia foral, municipal, concertada o privada”.

SIETE LÍNEAS DE ACTUACIÓN

A continuación, el diputado foral ha hecho también un repaso de las principales actuaciones que ha activado su departamento “desde el mismo 25 de febrero” cuando se empezaron a adoptar las primeras medidas en una primera reunión, 17 días antes de declararse el Estado de Alarma, y cuando todavía no había casos positivos en Bizkaia. En las “siete líneas de actuación” abiertas por su departamento, Murillo ha ofrecido datos actualizados en relación a las comunicaciones con centros y familias, el número de inspecciones y test realizados, y otros detalles como la limpiezas de centros, alojamientos para personal socio-sanitario, bolsa de trabajo y reparto de equipos de protección.

De esta forma, la Diputación, a través del servicio de bomberos y Basalan, y desde el 8 de abril conjuntamente con empresas autorizadas, habría hecho “1.023 actuaciones de limpieza y desinfección”. Asimismo, se han realizado “1.190 test PCR” a profesionales de los centros residenciales y “82 inspecciones físicas” a centros Covid hasta el pasado 4 de mayo, así como “294 actuaciones inspectoras”. Murillo ha detallado también que su departamento ha habilitado hoteles para alojar a personal socio-sanitario de Bizkaia con el resultado de “740 estancias, de 42 profesionales distintos”.

El responsable foral se ha referido a la bolsa laboral abierta con alumnos de último curso de los grados universitarios de medicina y enfermería y de FP, la cual cuenta hoy con “1.684 personas”, entre ellos “15 médicos, 34 DUEs y 1.403 cuidadores”, que han respondido las demandas de “37 centros”, y la contratación de “254” de estos profesionales. Por último, la Diputación ha repartido “más de un millón de mascarillas, batas y viseras”, llegándose a distribuir en una relación de “500 por cada 25 plazas”.

En otro orden de cosas, Murillo ha hecho referencia a la afección del virus en los centros de menores, donde no se ha detectado “ningún caso positivo” entre los usuarios, aunque “un menor” se encuentra en estos momentos “aislado”. Por el contrario, “9 trabajadores” han dado positivo por coronavirus en las pruebas practicadas.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En cuanto a los centros de diversidad funcional de más de 10 plazas que cuentan con “947 usuarios”, el departamento ha detectado “24 usuarios” y “18 profesionales” contagiados, y otros “6 usuarios” y “45 trabajadores” con síntomas compatibles.

Tras estos datos, Murillo ha querido reconocer el trabajo de los profesionales de la red social de Bizkaia en el “momento más difícil”, y destacar que la evolución de los datos describen que “lo peor ya ha pasado”. Las medidas puestas en marcha “en tiempo récord” han servido “para frenar la expansión del virus, y mantener la atención esencial a las personas que no podían ser olvidadas”, ha dicho.

Sin embargo, EH Bildu ha puesto en duda que la Diputación haya controlado las instrucciones que iba dando durante la crisis, ya que “desde el primer momento las EPIs no llegaban”. “¿Quién controla que se cumplan esas instrucciones? Hay residencias en las que no ha entrado el coronavirus y hay otras en las que el virus ha matado al 25% de los residentes. En Aperribai han superado incluso este porcentaje. ¿Qué control ha existido sobre esas residencias? Si no ha existido control, es el momento de estudiar un cambio de sistema”, ha manifestado su portavoz Bea Ildia, para quien la pandemia ha dejado “claro” que el sistema residencial de Bizkaia “hace aguas por todas partes”. “¿Cuándo nos van a detallar los datos residencia por residencia?”, ha preguntado.

Asimismo, la coalición abertzale ha pedido una valoración del estado de los centros de Birjinetxe, Unbe y Santurtzi, convertidos en unidades especializadas de la red para aislar a los usuarios infectados por coronavirus. El diputado foral se apoyado de nuevo en datos. Ha confirmado que los “96 profesionales” de Birjinetxe, en donde se han dado “22 altas” con una ocupación media de “56 plazas”, han atendido a “112 personas”. Por su parte, en Unbe, “48 profesionales” se han ocupado de “111” enfermos con “22 altas”, y una ocupación media de “47 personas”. Y, por último, en Santurtzi, “16 trabajadores” han estado al tanto de “las 8 plazas” de ocupación media que ha tenido esta unidad gestionada conjuntamente con el Gobierno Vasco desde el 18 de abril.

Bea Ildia ha preguntado por qué estos residentes “enfermos no han sido tratados en las mismas condiciones” que las personas contagiadas que acudían a la red sanitaria. “Si tenía que ir a un hospital ha ido a un hospital. Nadie ha dejado de ingresar en un hospital para llevarle a estos centros”, ha respondido Murillo.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PROPOSICIONES RECHAZADAS

La larga sesión de hoy ha terminado con el rechazo de dos proposiciones no de norma. En la primera, EH Bildu pedía que se instara a la Diputación a elevar la atención directa en los centros residenciales, realizar pruebas de detección del SARS-CoV-2 a las personas usuarias y trabajadoras de estos centros, reforzar de forma inmediata el servicio de inspección, y garantizar en los centros privados el cumplimiento de las normas de actuación. La iniciativa ha sido rechazada por 5 votos a favor (EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia), 9 en contra (Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos) y 1 abstención (Grupo Mixto). Jeltzales y socialistas habían enmendado el texto sin éxito.

Los grupos que sustentan al Gobierno foral han rechazado también otra iniciativa del Grupo Mixto (PP), argumentando que el escenario “ha cambiado” y muchas cosas de las que se planteaban están siendo resueltas por los servicios sociales. En el escrito, se venía a instar a la Diputación a garantizar el suministro suficiente de EPIS, realizar test diagnósticos de COVID-19 a “todas” las personas profesionales y usuarios de las residencias de mayores, e incorporar apoyo psicológico en los centros residenciales, entre otras cuestiones.